



MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez




**Juan Mari
Beltran Argiñena**




41

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA

**Juan Mari
Beltran Argiñena**



2024



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Egilea: Juan Mari Beltran Argiñena

Orkatz Arbelaitz Olaziregi



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura

BELTRAN ARGIÑENA, Juan Mari

Juan Mari Beltran Argiñena / Juan Mari Beltran Argiñena, Orkatz Arbelaitz Olaziregi. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2025. – 56 or. : ir. ; 21 cm. – (Manuel Lekuona Saria ; 41). – Testuak euskaraz. – Manuel Lekuona Saria 2024.

ISBN: 978-84-8419-313-5

ISBN: 978-84-8419-314-2 (online)

1. Juan Mari Beltran Argiñena – biografia 2. Bibliografia – Juan Mari Beltran Argiñena

I. Eusko Ikaskuntza II. Saila III. Izenb.

Azaleko argazkia: Orkatz Arbelaitz Olaziregi

Erakunde hauen laguntzarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministeritza.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES
Bergara, 19 - 20005 Donostia
www.eusko-ikaskuntza.eus - ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ISBN: 978-84-8419-313-5

L.G. D 00273-2025

Maketazioa, inprimaketa eta koademaketa: Michelena artes gráficas (Astigarraga)

Datu biografikoak	5
Une gogoangarriak	21
Bibliografia / Diskografia	39



Datu biografikoak

Donostian jaio zen 1947ko martxoaren 22an, Luisa Argiñena Alberdi (Alii) eta Ezekiel Beltran Okaranzaren (Donostia) semea. Orduan aita Temuan bakailaotan aritzen zen arrantzalea izaki, amaren familiaren laguntza gertuago izateko laster mugitu ziren Etxarri Aranatzera. Bertan hasi zen zazpi urterekin musika ikasten. Udaletxeko ganbaran zegoen Udal Musika Akademiako musika irakaslea eta herriko Musika Bandako zuzendaria Don Alfredo zen. Lehenengo aldiz joan zen egunean Don Alfredok, Musika Bandan behar zela eta, klarinetea ikastea eskaini zion lehenik eta hura ikasteko behar zituen aurreneko azalpenak eman zizkion etxerako lanekin batera. Klarinetea estutuxean sartu eta alde egitera zihoala, Don Alfredok deitu eta eskuan zeukan soinu-tresna ezagutzen zuen galdetu zion. Juan Mari baiezkoa erantzun zion, txistua zela, Etxarriko kalejiretan eta erromeri guztietan “Dantzakia” eta bestelako dantzak jotzeko erabiltzen zen soinu-tresna. Herrian txistulari taldea indartu nahi zenez, Don Alfredok txistua ikastea ere eskaini zion. Ezezkorik erantzun ez zionez, klarinetearekin eta txistuarekin itzuli zen etxera Juan Mari. Amak bi soinu-tresnarekin ikusi zuenean batekin ez zuen nahikoa galdetu zionean baietz erantzun zion, baina maisuak bi eskaini zizkionez biak hartu zituela.

Geroztik, eskolatik atera eta ogitartekoa azkar jan ondoren, udaletxeko eskailerak igo eta han aritzen zen etxera itzuli aurretik bi orduz solfeoa ikasten, klarinetea eta txistua jotzen, eta tarteka irakaslearen gelan “lezioa” hartzen. Egunero aritzen zen horrela Juan Mari, eta bera bezala bere anaia gazteagoa, Bixente; hura ere klarinete eta txistuarekin. Etxarriko musika bandan jotzeko maila lortu eta zerbait jotzen ikasi zutenean, entsegu egunetan musika klaseen ondoren bandakoekin lanean geratzen ziren. Hamaika urterekin, 1958an, jo zuen anaiarekin batera Musika Bandan publikoan lehenengo aldiz; urriaren hasieran ospatzen ziren Etxarriko festa nagusietan.

Garai hartan bandaren betebeharra izaten zen kontzertuak eta dantza saioetako musika jotzea. Garizumatik kanpo, jaiero jotzen zuten plazako musika kioskoan eta Juan Marik baranda ondoan zuen bere *behatoki* pribilegiatua, klarinete joleen tokian, aurreko ezkerraldean. Handik herriko jendea ikusten zuen; neska bikoteak *agarrauan* mutilen zain kioskoari bueltaka, mutilak dantza eskatzen, bikoteak sortzeko saiakerak eta lorpenak,... udan beroarekin eta neguan, elurra egiten zuenean, eskuineko besoa zurituta. Hamahiru urterekin Etxarriko musika bandarekin Lazkaon jotzera joaten ziren eta txistulari taldearekin, aurreneko aldiz, Iruñako Sanferminetan antolatu zen Txistularien Alardean jo zuten. Musika bandakoa izan zen bere lehenengo soldata: urtekoa 250 pezeta! Hura poza, diru sobrea amari eman zionean. Plazako dantza saioetan, kontzertuetan, prozesioetan, irtenaldietan, soldatarekin,... haur hark musikari izanez herriko figura txiki bat, oso inportantea, zela sentitu zuen; herrian eta herritik kanpora.

Juan Mari eta Bixenteren aita zenak, 1961. urte hasieran Euskal Herriko Txistulari Elkarteko bazkide inskripzioa oparitu zien, horrek berekin elkartearen aldizkariaren harpidetza zekarren, txistuaren inguruan orduan zegoen jakintza eta partitura ugari eskuratzeko aukera. Horrekin batera Bilboko Landaluzek egindako danbolin bana ere oparitu zien aita zenak.

1962, Etxarri Aranatzetik Donostiara

Hamabost urte bete zituen urtean Beltran Argiñena familiak bizilekua Etxarri Aranatzetik Donostiara aldatu zuen. Aitak Etxarri Aranatzeko zerrategiko lana Donostiako etxe bateko atezain lanarekin ordezkatu zuen eta amak etxeko kontuak eramaten jarraitu zuen. Iritsi orduko, aitak Isidro Ansorena txistulariaren eskolara eraman zituen Juan Mari eta Bixente, musika ikasten jarrai zezaten. Horretaz gain, Donostiako Alde Zaharreko Akademian delineaio eta topografia ikasten hasi zen; 1963an *Construcciones Yeregui* enpresan lanean hasiko zen delineatzaile eta topografo.

Txistua jotzeak garai hartako giro euskaltzalean parte hartzera eramane zituen, aldi berean euskal herri kulturara eta abertzale gazteen taldeetara hurbilduz. Amara Berrian bizi ziren eta bertako


gazteekin batera Donostian antolatzen ziren kultur ekintzetan parte hartzen zuten. Orduko gazteek ohi zuten bezala, modan zeuden joera musikalak eta bestelakoak ere jarraitzen zituzten, baina euskal folklorea eta mendizaletasuna ziren gazte talde euskaltzale haietan nagusi.

Garai hartan ezagutuko zuen, 1966an, gerora bere emaztea eta seme-alaben ama izango zen Pili Mendoza Garate.

Bi anaiak Donostiako zenbait dantza talderekin harremanetan jarri ziren, tartean Goizaldi, Izarti eta Argiarekin. Goizaldi Dantza Taldean Jose Inazio Montes txistulariarekin elkartzen ziren taldearen entsegutako lokalean. Izarti Emakumezkoen Euskal Dantza Taldeko zuzendaria zen Dña. Maria Elena de Arizmendirengana berriz Isidro Ansorenak bidali zituen. Donostiako Aurrezki Kutxaren babesean sortu berria zen taldeak txistulariak behar zituen emanaldietarako eta Ansorena maisuak lan hori egiteko bi anaiak aproposak izan zitezkeela pentsatu zuen. Gainera, 1966ko ekainean Caceres-eko *Festival de Folklore Hispanoamericano* jaialdian parte hartzeko hitza emana zuten. Txistulari taldea osatzeko atabalaria behar zuten eta Amarako txistulari taldetik ezagutzen zuten Andoni Egaña txistulariaren bitartez haren lehengusua, Xabier Egaña, etorri zen. Xabier atabalaria izateaz gain Argiako dantzaria zen. Cacereseko egonaldian sortutako adiskidetasunetik Argia dantza taldean sartu ziren Juan Mari eta Bixente.

Argia Euskal Dantza Taldea oso garrantzitsua izan zen Juan Marirentzat. Entsegu eta emanaldiez gain, talde hartakoek osatzen zuten bere lagun koadrila eta haiekin sakondu zuen Donostiako abertzale gazteekin zuen harremanetan; mendia, folklorea, politika, manifestazioak,... Garai hartan euskal folklorea (dantzak, abestiak, musika) eta bestelako adierazpen artistikoak ideologia nazionalistarekin oso lotuak zeuden, eta txistua jotzeak Donostia eta Gipuzkoako jende eta talde asko ezagutzeko aukera eman zion. Txistu hotsa aski izaten zen euskalduntasuna adierazteko eta alde bateko nahiz besteko askorentzat herri borrokaren ikur bat zen.

Juan Mari ordurako herri musikaren inguruko materiala biltzen hasia zen. Horretarako dirua behar zuen eta aitarekin musika joaz



lortzen zuen dirua bere soinu-tresnak, liburuak eta diskoak erosteko izatea adostu zuen. Geroztik, dantza taldearen emanaldietatik kanpo egiten zituen saioetan lortzen zituen sosak horretara bideratuko zituen.

1966, Argia dantza taldearen aro berria

Argia dantza taldearentzat, euskal kultura maite zuten Donostiako gazte abertzale eta euskaltzalez osatua, aldaketa ugariko urtea izan zen Beltran Argiñena anaiak bertan sartu zirenekoa. Urte hartan Jorge Oteizak adar ezberdinetako artista ugariarekin batera Euskal Arte Eskola sortu eta sustatu zuen, eta haren bueltan zebilen Goizaldi dantza taldeko Juan Antonio Urbeltz. Sortutako mugimendu horren barruan Urbeltzen ardura zen euskal folkloreak ordezkaritza sartzea. Egun batean Argiak Donostiako Kaputxinoetan zuen entsegu lokalera agertu zen berak folkloreak, herri kulturari eta herri dantzari buruz egindako gogoetak azaltzera; ikuspuntu berria eta berritzailea eraman zuen.

Oteizak eragin handia izan zuen filosofia eta jarrera berrian. Argia taldearekin gertuko harremana izan zuen entseguetara askotan azalduz eta bertan gertatzen zenari buruzko iritzia emanez. Bere eskutik Larrukert eta Basterretxearen *Ama lur* pelikulan parte hartu zuten Bizkaiko eta Nafarroako Baztango dantza ezberdinekin.

Ordura arte egindako guztia beste era batean ikusten eta baloratzen hasi ziren. Geroztik, herri kultura Argiaren nortasunaren osagai garrantzitsu bezala ikusteaz gain, balio handiagoa ematen hasi ziren. Herri kultura gauza bizia, aldakorra, emankorra eta gaurkoa zela ikusi zuten, arbasoengandik jaso eta berenganatu egin behar zutela. Hori ahalbidetzeko ezinbestekoa zuten kultura hori ongi ezagutzea eta herri musika eta dantzak biltzeko lanak abiatu zituzten. Gaiari buruzko dokumentazio zaharra biltzeaz gain jatorrizko iturrietara joaten ziren ikastera eta ahal zen guztia dokumentatuta gordetzen zen idatzi, argazki eta hots grabaketekin. Bildutako guztia Argia taldean gordetzen zen: jantziak, dantzen inguruko tresnak eta bestelako gauzak, musika grabaketak, argazkiak,... eta oholtzarako prestatzen zen bertsioaren oinarria zen.


Lan hauek emanaldien osaketa eta itxura aldatzea eragin zuten. Hasieran jantzi berarekin eta txistulari taldeak jotako musikarekin toki eta garai ezberdinetako dantzak egiten baziren, pixkanaka ahal zen neurrian jatorrizko jantziak, koreografiak, musika eta soinu-tresnak erabiltzen hasi ziren: Iribasko ingurutxoak, Durangaldeko Dantzari dantza, Otsagiko dantzak, Zuberoko dantzak, Lesakako dantzak,...

Aurreneko bilketa lanak

Argia taldean, Juan Antonio Urbeltzen eskutik, hasi zen Juan Mari Beltran lan eta abentura harrigarria izan den bilketa lanean. Hainbeste gai kontuan hartu behar zituen lantaldean Juan Mari bereziki musika biltzearen ardura hartu zuen. Batzuetan, musikaria eta dantzaria musika eta dantza hartzera elkarrekin joaten ziren. Beste batzuetan ordea, musika jasotzera musikaria bakarrik joaten zen.

Orduko lan haren zailtasunak azaltzen dituzte 1968ko otsailean Argia taldeko zenbaitek Barkoxeko Maskarada dokumentatzeko gertaerek. Grabagailu onik ez izaki eta Juan Mari bere lankide batek utzitako karretezko zintako Philips handi bat eraman zuen. Argiako dantzariek koreografia eta dantzeekin lotutako informazioa jaso zuten. Juan Mari bitartean Pierre Copen Mauletarra txirulariak eta Pierre Ager *Garat* tabalariak jotzen zuten guztia grabatzeaz arduratu zen. Ilunabarrean, Barkoxeko taberna batean Etxahun Iruri bertsolaria bertsoak kantatzen topatu zuen eta hura grabatzen hasi zen. Zoritxarrez, hirugarren bertsoan grabatzeko zuen zinta bakarra bukatu zitzaion eta ez zuen jarraitzerik izan. Horrelako gertaeretatik ikasi ere asko egin zuten eta ahal zen neurrian bilketa lanerako material gehiago eramaten saiatu ziren.

Geroztik, makina bat lekutan grabatzen aritu zen Juan Mari: Maule, Donostia, Irurita, Donibane Garazi, Lesaka, Iribas,... Argia taldearekin jaialdietan parte hartzen zutenean, batzuetan musikariak aritzen ziren dantza taldearen aurretik edo ondoren eta haiek grabatzen zituen, Nafarroa Behereko *Ramuntcho* orkestrari bere lurraldeko dantzak eta bestelakoak grabatu zizkion adibidez.



Herriz-herriko bilketa lanean informatzaile ugariekin izan ziren. Juan Marik grabatutakoen artean daude Santiago Irigoien Lesakan, Jean-Batiste Isulegi Maulen, Etxahun Irurin, Angel Alduntzin Leitzan,...

Etxean ere topatu zituen informatzaileak. Besteak beste, Nafarroako Alliko informazio ugari jaso zuen Argañeako Luisa Argiñena bere ama zenarengandik. Hark Eguberrietako kantei, sunprinuari, ingurutxoari eta kontu gehiagori buruzko informazioa eman zion. Bere amaren izeba zen Iribasko Trutxoneako Alejandra itsuari sunprinuarekin jo ohi zen *Durunbele* doinua eta Santa Agedako bertso sorta luzea hartu zion.

Grabazio saio haietan dantza doinuez gain kanta, bertso, jolas kanta eta herri-musika soinu-tresnei buruz ahal zen guztia hartzen zuen. Zinta bakarra izanik, grabazioaren transkripzioa egindakoan berriro grabatzeko erabiltzen zuen. Zorionez laster jabetu zen grabazio haien balioaz eta behar zuena transkribatzen jarraitu bazuen ere, grabazioak bere horretan gordetzea erabaki zuen.

Argia taldea soinu-tresnak ikasteko eragilea

Argia taldean dantzekin lotura zuen guztia ikertzen hasi ziren garaian leku batetik bestera soinu-tresnen erabilpena ere aldatu egiten zela ikusi zuten eta ordura arte txistulari taldearekin moldatu baziren ere, dantza bakoitzak bere jatorrian zuen instrumentazioa erabiltzen hasi ziren. Emanaldia osatzen zuten dantzen erreperitorioan leku ezberdinetako dantzak sartzen zirenez, musikariek soinu-tresnak bezala, dantzariak arropak aldatu behar izaten zituzten eta horretarako denbora izan zezaten musikariek Euskal Herriko soinu-tresnen tradizioan oinarritutako interludioak jotzen zituzten. Guzti horren eraginez, soinu-tresna berriak eskuratu behar izan zituzten. Hori gutxi ez, eta haiek jotzen ere ikasi beharra zegoen. Nafarroa Behereko dantzak emanaldietako erreperitorioan sartu zirenean Juan Marik klarinetea jotzen zuen, Zuberoako dantzetan xirula eta ttunttuna. Baina soinu-tresna gehiago jo behar ziren.

Txalaparta jotzen ikasteko ezagutu zituzten aurreneko txalapartariak zuaznabartarrak izan ziren. Erbetegi-Etxeberriko Asentsio eta Ramon Goikoetxea geroago ezagutu zituzten, Donostiako *Euskal Jaietan* urtero izaten zen *Festival de instrumentos autóctonos* hartan. Beltrandarrek Lasarteko Santa Barbara Elkartearen entseuetan zuten txalaparta, eta Artze anaiekin Usurbilen.


Zenbait dantzaren musika dultzainarekin jo behar zen eta hura jotzen ikastera Juan Mari eta Bixente hilean behin edo bitan, igandez, amak jarritako bina ogitartekorekin, Bilbon bizi ziren Lakunza anaiengana joaten ziren.

Alboka jotzen ikasi behar izan zuten eguna ere iritsi zen eta Juan Mari J. Mariano Barrenetxearekin harremanetan jarri zen. Hark bidalitako planoan oinarrituta 1966an etxean egin zuen bere lehenengo alboka; Donostiako Zurriolako hiltegia adarrak erosi, Ulian kanabera bildu eta zur taula zatitxo batekin. Oraindik gogoan du sukaldean adarrak egosi zituenean etxe osoan zabaldu zen kiratsa. Labanarekin landu zituen adarrak eta zura. Fitak prestatu eta jotzeko prest! Hobeak ziren bigarren eta hirugarren alboka bat ere egin zituen. Azken hori entseguak egiteko *Sustraiak* taldekoek erabiltzen zuten Donostiako Kaputxinoen elizako gelatik lapurtu zioten, beste soinu-tresna askorekin batera.

Argia taldearen ikuskizun batzuetako bi dantza multzoetan Zuberoako soinu zahar batzuk jotzeko xirolarria jotzea erabaki zuten eta horretarako zahagidun gaita jotzen ikasi behar izan zuten. Eta tarteka sunprinuarekin *durunbelea* ere jo zuen Iribasko garai bateko artzainek bezala.

1970, Argia taldeko ibilbidearen amaiera

Gaur egun hala ez bada ere, orduan gizonezkoek soldaduska derrigorrez egin beharra zuten estatu espainiarrean eta Juan Mariri 1969ko urtarriletik 1970eko apirilera egitea egokitu zitzaion. Euskal Herriak kanpora euskalduntasuna erakutsi edota adierazteko garai zailak izanik, txistua eta bere ohiko soinu-tresnak ez eramatea erabaki zuen. Hori bai, musika egiten jarraitu nahi zuela



eta gitarra bat erosi eta jotzen ikasi zuen. Soldaduskan, kuarteleko lagun arteko bileretan jotzeko erabili zuen.

Handik bueltan, Argia dantza taldean 1970eko denboraldia osatu eta haren bukaeran, taldeak zeuzkan konpromiso guztiak betetakoan, taldea utzi zuen herri musikan garai berri bat hasteko.

1971 eta 1995 artean

Argia utzi ondoreneko urteetan hainbat aldaketa etorri ziren Juan Mariren bizitzan. 1971an Pilirekin ezkondu eta Donostiako Intxaurren auzoan bizitzea erabaki zuten. Handik lau urtetara Aitor jaioko zen eta 1981ean Irati.

Ordurako, *Construcciones Yeregui* enpresan delineatzaile eta topografo bezala lanean ari zen, baina aldi berean musikara erabat lotuta jarraitzen zuen, bai bakarka edo taldeetan jotzen, baita herri-musikari buruzko informazioa eta ezagutza jasotzen.

Soldaduskatik bueltan musika ikasketa ofizialak osatu zituen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan irakasle ezberdinekin, besteak beste P. Azpiazu, J. L. Marco, L. Manzidor eta J. I. Ansorenarekin.

Herri-musikari dagokionean maisu zaharrekin bere aurreko ikasketetan sakondu zuen. Juan Mariri erakutsi zioten maisu haien artea izan ziren: S. Elezkano *Txilibrin*, L. Bilbao, E. Etxebarria, M. Barrenetxea, P. Gorrotxategi, J. Sagarna eta P. Sagardia, Sodupe *Montte* anaiak, J. Peña, A. Aizpurua, B. Elorza, Agirretxe anaiak, J. Aiesta, P. Bilbao, Lakunza anaiak, Lizarrako Gaiteroak, Zuaznabar anaiak, Goikoetxea anaiak, P. Caubet, beste makina bat albokari, dultzainero, txistulari, xirulari, arrabita-jole, tronpa-jole eta xirolarru-jolarekin batera.


Eusko Ikaskuntzaren Musika eta Folklore sailean sartu zen 1982an. Ez zen denbora asko pasa sail hura bitan banatu zenerako, alde batetik Musika saila geratu zen eta bestetik Folklore saila eta Juan Marik bitako zeinetan jarraitu aukeratu beharrean ikusi zuen bere burua Folklore sailean jarraitzea erabaki zuelarik.

Sailak antolatutako lan ezberdinetan aritzen zen antolatzaile, biltzaile, hizlari edo musikari gisa, eta aldi berean herri-musikari buruzko informazioa biltzen jarraitzen zuen, lehen baino denbora gehiago eskainiz. Bilketa horren emaitzetako batzuk dira Eusko Ikaskuntzaren Folklore sailaren koadernoetan argitaratu zituen idazlanak, edo handik kanpora argitaratutako disko eta dokumental erako filmak ere.

Urte horietan Euskal Herriko hainbat herritan herri musikari eta soinu-tresnei buruzko hitzaldi eta ikastaroak eman zituen; geroztik, maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin etenik gabe mantendu duen aktibitatea. Donostiako Intxaurren auzoan bizi zen eta bertako auzo-elkarteak 1973 eta 1980 artean antolatu zituen ekintzen egitarauan txistua jotzen erakusten aritu zen. Bertako ikasleekin *Txundata* txistu taldea sortu zuen eta igandero auzoan diana jotzeaz gain eguerdian dantzaldia ematen zuen auzo erdian. Talde bera zen auzoko festetan musika joaz parte hartzen zuena.

Argia dantza taldea utzi ondoren bestelako musika emanaldiak ohikoago bihurtu ziren Juan Marien bizitzan. Formatu ezberdinetan jotzen zuen, eta orduko maiztasunarekin ez bada ere gaur egun hala jarraitzen du. Bakarrik bezala, talde txikiago (Sustraiak (1971-1974), Juan Mari Urruzolarekin (1977-2020), Astiasaran Beltran (1984-2015), Joxan Goikoetxearekin (1994-2001),...) edo handiagoekin (Txantxangorri txaranga (1973-1980), Azala (1979-1984), Txanbela (1984-2001),...), oholtzan bezala kaleko taldeetan, aritu da Euskal Herrian nagusiki, baina baita handik kanpora ere. Talde txikiekin euskal herri musika ardatz izan duten kontzertu didaktikoak eman ditu. Kaleko taldeetan festa ugari alaitu ditu txaranga, dultzainero, txistulari eta albokari taldeekin. Urte hauetan era guztietako ehundaka kontzertu eta saio izan dira guztira (kultur asteak, herrietako festak, erromeriak, ikastolen festak, omenaldiak,...), eta bereziki emankorrak izan ziren 80ko hamarkadako urteak. Izan ere, urte batzuetan hirurogei eta laurogei saio artean ematen baitzuen urte bakarrean.

Musika emanaldi guzti horiek eman ahal izatera ailegatzeko, 1983an aldaketa nabarmena gertatu zen langile bizitzan. Juan Mari ordura arte lantokia zuen *Construcciones Yeregui* enpresa



utzi eta musikan profesionalki aritzea erabaki zuen. Alde bate-tik musika emanaldiak ugaritu egin ziren eta bestetik musika ikastaroak ematekiko eskoletan erakustera pasa zen. Donostiako Intxaurren Ikastolako musika irakaslea izan zen 1983 eta 1985 artean. Ondoren Hernani Musika Eskola Publikoko irakasle izateko aukeratu zuten.

Hernaniko udalak 1985ean jarri zuen musika kontserbatorioa eta bertako txistu irakasle izateko aurkeztu zen Juan Mari. Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan oposizioetako epaimahaiaren aurrean jo eta Hernaniko udaletxean euskara azterketa gainditu ondoren irakasle hartu zuten. Hernaniko udalak kontserbatorioan txistuaz gain euskal herri soinu-tresnak (alboka, dultzaina, txalaparta eta trikitixa) ikasteko aukera zabaltzeko nahi zuen eta berak txistua, dultzaina, alboka eta txalaparta erakusteko ardura hartu zuen. Hori izan zen 1985 eta 1995 artean dedikazio handiena eskatu zion jarduerari; bere ofizioa, soldata, afizioa eta proiektu nagusia. Ordu asko eskaini zizkion klaseak emateari eta klase orduetatik kanpo klaseak prestatzeko, errepertorioa osatzeko edota ikasle taldeekin herriz-herriz. Dultzaina ikasteko metodo bat eta alboka ikasteko beste bat osatu zituzten Hernanin. Txalapartaren kasuan, metodoa osatzeaz gain txalaparta joaldiak idazteko sistema bat asmatu zuten eta denborarekin Ttakun txalaparta ikasteko programa informatikoa bihurtu zen. Metodo eta errepertorio haiek beste eskoletara zabaltzeko zituzten.

Albokari, txistulari, dultzainero eta txalapartari onak eta ospetsuak atera ziren bere Hernaniko gelatik. Haietako batzuk musika eskoletan soinu-tresna haiek jotzen erakusten ari dira gaur egun. Ikasle haiek talde ugari sortu zituzten eta Hernani inguruko, nahiz urrutiko, taldeetan ere agertzen dira txalaparta, alboka, txistua zein dultzaina jotzen.

Txalaparta eta alboka hain ezagunak ez zirenez, haiek ezagutarazteak ahalegin berezia eskatzen zuen eta Juan Mari-ekin soinu-tresna horien inguruko topaketak bultzatu zituen Hernanin. *Txalaparta Festa* 1987tik antolatzen den jaialdia da eta *Albokarien Hernaniko Topaketa* 1994an ospatu zen lehenengo aldiz.

Dokumentazio zentro bat antolatzeko saiakera


Urte guzti hauetan bere bildumak handitzen jarraitu zuen. 80ko hamarkadaren bukaerarako soinu-tresna, liburu eta disko ugariz gain, zuzenean egindako audio eta bideo grabaketaz eta argazkiz osatutako bilduma handia zuen. Horren jakitun, musikari eta folklozezale ugari pasatzen ziren bere etxetik material eta informazio bila, baina batzuetan ez zen erraza izaten behar zuten hura esku-ratzea: batetik bildumaren tamainarengatik, eta bestetik bildumaren zati bat etxetik kanpo zeukalako. Hori nolazpait bideratu eta musikari eta ikertzaileen eskura jartzeko helburuarekin lanean hasi zen.

Laurogei eta hamarrek hamarkadaren hasieran aurreproiektu bat idatzi eta Hernani Musika Eskolan lankidea zuen Joxan Goikoetxea akordeoilariak utzitako ordenagailuarekin datu-base batean soinu-tresnen fitxak betetzen hasi zen. Aldi berean, bilduma osoa antolatzeko leku handia behar zuela jakinik Euskal Herriko leku ezberdinetan etxe edo baserri baten bila hasi zen.

Laster ikusi zuen proiektuaren kostua ezin zuela bere gain hartu eta proiektua erakunde publiko ezberdinei aurkeztea erabaki zuen. Aurreproiektua eskuartean zuela Luis Mari Bandresengana joan zen. Txistularia, albokaria, dultzaineroa eta euskal herri musikan aritzen zena zen. Garai hartan Donostiako Injineru Tekniko Industrialen Amarako eskolan irakasle bazebilen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduraduna izandakoa eta Gipuzkoako EAJren zuzendaritzan hezkuntza nahiz kulturako jardueran aritutakoa ere bazen. Proiektua oso interesgarria zela esatearekin batera, bere iritziz nola bidera zezakeen azaldu zion.

Bilduma publikoarekin partekatzeko bidea hasi zuen momentuan beste lan handi bat iritsi zitzaion: Aita Donostiaren kantutegia. Bere proiektua momentuz baztertu beharrean ikusi zuen bere burua.

Lekarozko Kaputxinoen komentuan Aita Jorge Riezu Aita Donostiaren Euskal Kantutegia argitaratzeko prestaketa lanean ari zen. Hura laguntzeko, kantutegia argitaratzeko arduradun taldea osatzen zuten Lekarozko Kaputxinoek, Eusko Ikaskuntzak eta




Eresbilek, komentuko Claudio Zudaire eta Juan Mari Beltran izen-datu zituzten.

Berehala hasi ziren biak lanean. Aita Jorge Iruñeko kaputxinoen *P. Esteban de Adoáin* zaharren egoitzan bizi zen. Astean zehar Claudiok eta Juan Marik prestatzen zutena berak errebisatuta zezan asteburuan eramaten zioten. Hark aurreko astean eramandakoa errebisatuta izaten zuen eta elkarrekin ikusten zuten; zuzentzeko eramandakoa aste osorako etxeko lan gisa jasotzen zuen. Bi urte-tan aritu ziren horrela, Aita Jorge 1992an hil zen arte. Ordurako Zudaire Estatu Batuetan bizi zen, eta Aita Jorgek jarritako bidea jarraituz Juan Marik bakarrik segí zuen lana bukatu arte. *Cancionero Vasco P. Donostia* 1994an bukatu zuen eta Eusko Ikaskuntzak urte horretan bertan argitaratu zuen lau tomatan.

Lau urtetan alde batera utzitako proiektua, herri musikari buruzko bilgunea, Aita Donostiaren kantutegia argitaratu zen urtearen bukaeran berreskuratu zuen. Luis Mari Bandresengandik jasotako iritzi eta aholkuak kulturgintzan, hezkuntzan eta museoe-tan ezagutzen zituen lagunekin osatu zituen; haien artean; Manex Pagola (Baionako Euskal Museoa), Jose Anjel Arbelaitz (kultur kudeatzailea), Joaquín Díaz (Urueñako Centro Etnográfico Joaquín Díaz), Frantxis Lopez de Landatxe (Koldo Mitxelena kulturgunea) edota Maravillas Díaz (EHUko Bilboko irakasle eskola). Makina bat bileratan guztiek egindako era bateko zein besteko ekarpenekin 1995 hasieran osatu zuen aurkeztuko zuen proiektua eta interesa-tuta egon zitezkeen lekuetara eramane zuten. Nafarroako gobernuarekin eta Hernani, Zizurkil, Asteasu, Tolosa eta Oiartzungo udalekin bilera ezberdinak izan zituen. Denek ez zuten interes bera azaldu, baina tartean baziren proiektua beraien lurretan hartu nahi zutenak. Azkenik, Herri Musikaren Txokoa sortzeko, bere bildumaren erabilera Oiartzungo proiektuari uztea hobetsi zuen Juan Marik.

1995, Herri Musikaren Txokoaren sorrera

Oiartzungo udalarekin 1995ean adostasuna lortu eta urte horretan bertan Ergoieneko eskola zaharretan hasi zen lanean. Hernaniko musika eskolako irakasle izaten jarraitzen zuten eta hango lanak bukatutakoan Herri Musikaren Txokoa jarraitzen




zuen bere proiektuarekin. Orduan Intxaurrondon bizi zen bere familiarekin eta goizean goiz etortzen zen Oiartzuna lanera, eguerdian Hernanira joaten bertan bazkaldu eta musika eskolan klaseak ematera eta bederatziak alderako itzultzen zen Intxaurrondora. Asteburuak ere Oiartzunen pasatzen zituen eskola zaharreko etxebizitzetako batean, Herri Musikaren Txokoaren hasierako biltegi eta artxiboaren ondoan.

Orduan hasitako lanen ondoren, 2002ko martxoaren 1ean zabaldu zizkion publikoari Herri Musikaren Txokoak; beheko solairuan herri musikan erabiltzen diren soinu-tresnez osatutako erakusketa eta goikoan artxiboarekin. Geroztik han jarraitzen du Juan Marik Herri Musikaren Txokoa zuzentzen.

2012an Hernani Musika Eskolako lanetatik erretiroa hartu zuen eta Herri Musikaren Txokoan aldaketa batzuk izan ziren, tartean izenaren aldaketa: Soinuenea izatera pasa zen.

Gaur egun, proiektua abiatu zenean bezala, Soinuenean herri musika, bertakoa eta mundukoa, ezagutarazten lanean jarraitzen du bertako lankideekin batera. Bisitan etortzen direnei, eskolako haur eta gazteei zein edozein adineko taldeei, soinu-tresnen erabiltzeko era eta funtzioa erakustez gain, kontsultak egitera etortzen diren ikasle, musikari eta ikerlariak laguntzen aritzen da. Bilketa lanean, ikerketan eta musika egiten ere jarraitzen du, jakina.

Une gogoangarriak



Argazkiak: Familiaren artxiboa.



Jaunartzea, Etxarri Aranatz, 1956.



Juan Mari eta Bixente. Etxarri Aranatz, 1958.



San Adriango erromeria. Juan Mari eta Bixente amarekin eta auzokide lagunarekin. Etxarri Aranatz, 1960.



Lagun koadrilarekin Etxarri Aranazko festetan. 1963ko urrian.



Argia Dantza Taldearekin. Atarratze, 1966.



Amara Berriko txistulariak Jaiotzarekin. Donostia, 1966ko eguberritan.




Bixente eta Juan Mari Beltran eta Jose Mari Gutierrez. Argia Dantza Taldeko txistulariak, 1967an.



Argia Dantza Taldearekin Iztuetairen omenaldiko ohorezko aurrekuan. Zaldibia, 1967/12/03.



Argia Dantza Taldearekin. Txalapartariak, Juan Mari eta Bixente Beltran. Elizondo, 1968ko uztaila.



Argia Dantza Taldearekin. Dultzaineroak, Juan Mari eta Bixente Beltran, danbor-jolea Jose Mari Gutierrez. Elizondo, 1968ko uztaila.



Sustraiak taldea 1972ko Amara Zaharreko festetan. Erdian kantatzen eta panderoa jotzen Primi Erostarbe. Donostia, 1972.



Azkoitiko Martirietan, Montte baserrian Jose Sudupe dultzaineroarekin. Azkoitia, 1980.



Azala taldearen kontzertua. Donostiako Plaza Berria, 1981eko abuztuan.



Saustako Migel Zuaznabar txalapartariarekin txalapartari buruzko informazioa biltzen. Lasarte, 1981/08/01.



Erbetegi-Etxeberriko Asentsio eta Ramon Goikoetxea txalapartariekin 1984an txalaparta jotzen.



Hernani Udal Musika Eskolako txistu ikasleekin 1986an.



Trutxonean Silla-dantza ikasten Udako Euskal Unibertsitateko ikasleekin. Iribas, 1987ko uztaila.



Udako oporretan etxeko laurak. Faltzes, 1988.



Txanbela taldearekin Britainian kontzertu biran. Britainia, 1990eko maiatz.



Du Manoir estudioan Joxan Goikoetxea Juan Mari Beltran musikarien *Egurraren orpotik dator* diskoaren ekoizle, produktore, musikari eta teknikariek. Landak, 1993ko urtarrila.



Herri Musikaren Txokoko egoitzan familiarekin. Oiartzun, 1995eko uda.



Donostiako Itzurun Erraldoi eta Buruandien konpartsarekin Aste Nagusian. Juan Mari Beltran, Juan Mari Uruzola eta Errege Belda. Donostia, 1995eko abuztua.



Oiartzungo haurreskolan. Oiartzun, 1998/06/17.



Astiasaran anaiak eta Juan Mari Beltran Zelatungo erromerian. Errezil, 2002/09/07.



Herri Musikaren Txokoan bisita gidatu batean. Oiartzun, 2004.



Tindufeko Kanpamentuetako eskola batean Andoitz Antzizar eta Ander Barrenetxearekin. Tinduf, 2005/03/22.



Vancouverren seikotearekin eskainitako kontzertuan. Ander Barrenetxea, Aitor Beltran, J. M. Beltran, Miriam F. Atxaerandio, Aitor Gabilondo eta Jasone Kamara. Vancouver, 2007/09/14.



Fernando Jalonekin *Xirolarrua* disko-liburuko aurkezpen kontzertuan. Oiartzun, 2012/06/02.



Hernani Udal Musika Eskolaren agur-ekitaldian. Hernani, 2012/09/29.



Kostaldeko soinuak diskoaren aurkezpeneko kontzertua. Ander Barrenetxea, Ixiar Jauregi, J. M. Beltran, Errege Belda, Aitor Gabilondo. Donostia, 2019/12/26.



Itziar Navarro, Orkatz Arbelaitz eta Joseba Zabaleta Soinueneako lankideekin. Oartzun, 2023/12/20.

Bibliografia / Diskografia

1. ARGITARATUTAKO IDATZIAK

- 1978: *Azal doiñuak: Sunpriñu eta Txulubite*. Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, 29 zk. 349-362 or. Institución Príncipe de Viana. Pamplona.
- 1985: *Euskal Herriko Soinu tresnak*. IZ Diska Etxea. Donostia. IZ. 217-D diskaren kuadernotxo.
- 1985: *Kaleko musikatik espektakulora*. Argia Urtekaria 1985.
- 1987: *Doinu zaharren inguruan*. Iribas. UEUren Musika Saila; Bilbo; 1990.
- 1988: *Txalaparta*. Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, 52 zk. 419-439 or. Pamplona.
- 1989: *Txalaparta*. "Aurrera Begira"n, 181-206 or. Heda Saila 5. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.
- 1991: *Gipuzkoako Dultzaina-La Dulzaina en Gipuzkoa*. Cuadernos de Sección. Folklore.- N.º 4. 185-232 or. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- 1991: *Maurizio Elizalde musikari herrikoia*. Txistulari aldizkaria 148 zenb.
- 1994: *Festei Buruzko Inkesta-lana Gipuzkoako Kostaldea*. Cuadernos de Sección. Folklore.- N.º 5. 9-85 or. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- 1994: *Cancionero Vasco P. Donostia*. (I, II, III, IV.). Donostia. Eusko Ikaskuntza. Editor: Aita Jorge Riezu. Colaboradores: Juan Mari Beltran, Claudio Zudaire.
- 1995: *Euskal soinu-tresna herrikoien zabalkundea Hezkuntza Sarean*. Eusko Ikaskuntzaren XII Kongresua. Gasteiz.
- 1995: *Silla-Dantza eta Almute-Dantza Iribesko bi dantza-joku*. Sukil, Cuadernos de Cultura Tradicional 1. Iruñea.
- 1996: *San Telmo Museoko soinu eta hots tresnak*. Cuadernos de Sección. Folklore.- N.º 6. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- 1996: *Soinutresnak euskal herri musikan*. Euskal Gaiak, 42. Orain S. A.

- 1996: *Aita Donostiaren Euskal Kantutegia eta Hernani*. Hernani 1996 urtekaria.
- 1997: *San Telmo Museoko soinu eta hots tresnak*. Cuadernos de Sección. Folklore 6. Eusko Ikaskuntza. (1998) Lankidetzan 5.
- 1997: *La enseñanza de los instrumentos tradicionales vascos*. Eufonía. Didáctica de la Música. n.º 6, enero 1997.
- 1998: *Una teoría numérica del ritmo aplicada a la txalaparta*. J. M. Beltran-F. J. Sánchez. Txistulari 173.
- 1998: *Musika herrikoia hezkuntzan*. Hik Hasi aldizkaria. Mai. 1998.
- 1998: *Instrumentos en la música popular vasca*. Euskonews & Media. 10-10-1998.
- 1998: *La txalaparta*. Euskonews & Media. 10-10-1998.
- 1999: *Euskal Herri Soinu-tresnak Hernanin azken urtetan*. Euskal Herriko XXII. Marmitako Txapelketa: Hernani.
- 1999: *Herri musika dokumentazio zentro bat egiteko, antolatze eta funtzionamendurako egitasmoa*. Musiker. Cuadernos de Música, 11. Eusko Ikaskuntza.
- 1999: *Agurra. Ortzadar 25. Urteurrena*. Ortzadar Euskal Dantzari Taldea. 1974-1999.
- 1999: *Euskal Herriko Soinu-tresnak*. CD-ROM. Elhuyar Kultur Elkartea-Herri Musikaren Txokoa.
- 1999: *Soinu-tresnak*. www.basquearts.com
- 2000: *Música de la naturaleza, naturaleza de la música. Turuta Mirlinton*. In-fan-cia, 59. Revista de la Asociación de Maestros Rosa Sensat.
- 2000: *Música de la naturaleza, naturaleza de la música. Cigarra*. In-fan-cia, 60. Revista de la Asociación de Maestros Rosa Sensat.
- 2000: *Música de la naturaleza, naturaleza de la música. Turuta-gaita*. In-fan-cia, 61. Revista de la Asociación de Maestros Rosa Sensat.
- 2000: *Música de la naturaleza, naturaleza de la música. Kaskamelan*. In-fan-cia, 62. Revista de la Asociación de Maestros Rosa Sensat.
- 2000: *Música de la naturaleza, naturaleza de la música. Kilikalaska*. In-fan-cia, 63. Revista de la Asociación de Maestros Rosa Sensat.
- 2000: *Música de la naturaleza, naturaleza de la música. Txepetxa*. In-fan-cia, 64. Revista de la Asociación de Maestros Rosa Sensat.

- 2000: *Oñatiko Arrikurtz baserriko txilibitua*. Txistulari aldizkaria. 181 zenb.
- 2000: Dantza taldeak herri musika eta soinu-tresnen berreskuraketaren iturri. Sukil, Cuadernos de Cultura Tradicional 3. Iruñea.
- 2000: *Euskal herri-musikaren soinu-tresnak - Los instrumentos en la música popular vasca* - Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileko www.euskadi.net/kultura/musica/musica
- 2001: *Herri-Musika, Música Popular, Musique Populaire, Traditional Music*. "GIPUZKOA, Bihotz-begietan-los espejos transparentes-les yeus du coeur-with my heart in my eyes" liburuan. Xabi Otero. Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa. Donostia San Sebastián.
- 2001: *Lan erritmoetatik musikara*. Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore, 7. Eusko Ikaskuntza.
- 2002: *Juguetes sonoros. (Folklore musical Infantil, III)*. Akal / Didáctica de la Música, 6.
- 2002: *Patrimonio Musical Vasco. Aportaciones foráneas en la recopilación del Cancionero Popular Vasco*. Musiker. Cuadernos de Música / n.º 13 (2002). Eusko Ikaskuntza. Donostia. (195-220 orri.)
- 2002: *Alboka*. Anuario da Gaita, 2000, n.º 17. Escola Provincial de Gaitas Deputación de Ourense. (pág. 87)
- 2003: *Erromeria eguna*. Oarsoaldeko hitza. 2. orrialdea. Errenteria.
- 2003: *La cultura Popular*. "El Maestrazgo Torolense. Música y literatura populares en la primera mitad del siglo XX" liburuaren prologoa. Rolde de Estudios Aragoneses; Prensas Universitarias de Zaragoza; Zaragoza.
- 2003: *Iniciación a la música en la cultura popular. Los instrumentos de uso infantil en la educación musical*. www.revistas.unam.mx/index.php/cem/article/view/7337. UNAM. Mexico.
- 2004: *La iniciación a la música en la Cultura Popular. Los juguetes sonoros en la iniciación musical*. I Seminario-Taller de Educación Musical Infantil. Altea. SEM-EE.
- 2004: *Dultzaina Gipuzkoan. La dulzaina en Gipuzkoa. 1950. hamarkada arte. La dulzaina en Gipuzkoa. Hasta la década de 1950. The dulzaina of Gipuzkoa. Until the decade of 1950s*. Herri Musika Bilduma, 1. HM Txokoa. Oiartzun.

- 2004: *Txalaparta eta beste aldaera zaharrak. La txalaparta. Antecedentes y variantes. La txalaparta, orígenes et variantes. The txalaparta. Forerunners and variants.* Herri Musika Bilduma, 3. HM Txokoa. Oiartzun.
- 2005: *El misterio de la txalaparta.* Lur. arte, gastronomía, guía. n.º 5. Primavera 2005. pág. 21.
- 2005: *Xírolarru – Gaita. La cornamusa en el País Vasco.* Anuario da Gaita 2004, n.º 19. (pág. 69-84) Ecola Provincial de Gaitas. Deputación de Ourense.
- 2006: *Larraungo Ingurutxoia edo Ingurutxoia Larraunen.* Dantzariak. 2006.
- 2007: *Herri-musikaren alde batzuk.* Jentilbaratz 9. Cuadernos de Folklore, 9. Eusko Ikaskuntza.
- 2007: *Hernaniko txalaparta eskolaren 11 ikasturte.* Jentilbaratz 9. Cuadernos de Folklore, 9. Eusko Ikaskuntza.
- 2007: *Herri musikaren alde batzuk.* Jentilbaratz 9. Cuadernos de Folklore, 9. Eusko Ikaskuntza.
- 2007: *Bertsolaritza, herri-musikaren eragile eta sortzaile.* Herri Musikaren I. Jardunaldiak. Herri Musika – Bertsolaritza liburuan. Herri Musika Bilduma, 4. Oiartzun.
- 2008: *Herri musika. “Atzorik etzira”* liburuan. Mendebalde Kultura Alkartea.
- 2008: *Herri Musikaren Txokoa Oiartzunen.* Mugarri, 15. Oiartzungo Udala. 2008. Liburu+DVD.
- 2008: *Dantza zaharren berreskurapena.* “Herri Musikaren 2. eta 3. Jardunaldiak. Herri Musika Bilduma, 5. Oiartzun, 2008.
- 2009: *Eugenio Etxeberria Albokaria.* J. M. Beltran eta Manu Gojenola. Herri Musika Bilduma, 7. Oiartzun, 2009.
- 2009: *Txalaparta.* (liburua+CD+DVD). Editorial Nerea – NO-CD Rekords. Donostia-San Sebastián.
- 2009: Jolasetik musikara: *Hots tresnak eta jostailuak (erakusketa); Hot, erritmo eta musika jolasak (tailerra).* Jokoak, Kirolak eta Folklore-Ikerketa. Jardunaldiak. Basauri, 2008 / Juegos, Deportes e Investigación Folclórica. Jornadas. Basauri, 2008 / Emilio Xabier Dueñas, ed. Lit. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2009. Colección Lankidetzan Bilduma, 51.

- 2010: *Albokari berrien eskola. Herri Musikaren 6. eta 7. Jardunaldiak. 2007: Alboka, iragana, oraina eta geroa.* Herri Musika Bilduma, 8. Oiartzun.
- 2011: *Txalaparta Festa. Hernani, 1987-2011.* Herri Musika Bilduma, 8. Oiartzun.
- 2012: *Xirolarrua. Zahagidun gaita Euskal Herrian.* Liburu+CD. Oiartzun. HMB-2012-534.
- 2012: *Hernaniko Musika Eskola, euskal herri musikaren harrobia. In: Hernani Musika Eskola Publikoa, 1985-2010.* Hernani Musika Eskola Publikoa-Hernaniko Udala.
- 2013: *ALBOKA. Inguru folklorikotik eskolara. ALBOKA. Del entorno folklórico a la escuela.* Herri Musika Bilduma, 10. Oiartzun.
- 2014: *Orioko Silla-Dantza.* Dantzariak, 59. 102-11. orri.
- 2015: *Dultzaina Gipuzkoan. XX. Mendeko Gipuzkoako dultzaineroen musika.* Liburu+CD. Oiartzun. HMB-2015-1351
- 2016: *Larraungo Herri-dantzak. Larraungo herrietan XX. Mende hasieratik erdiladera arte egin ziren dantzak.* Liburu+CD. Oiartzun. HMB-2016-1154.
- 2017: *Agirretexarrak. Gipuzkoako dultzainaren testigantza.* Liburu+CD. Oiartzun. HMB-2017-1172.
- 2018: *Pierre Caubet: "Pethi Xübüko Arhane".* Liburu+CD+DVD. Oiartzun. HMB-2018-1329.
- 2019: *Irasko.* Liburu+DVD. Oiartzun. HMB-2019-01151.
- 2021: *Soinu-tresnak euskal herri musikan. Entziklopedia I. Aerofonoak I.* L.G.: D 01564-2021.
- 2022: *Soinu-tresnak euskal herri musikan. Entziklopedia II. Aerofonoak II.* L.G.: D 01299-2022.

2. DISKOGRAFIA

- 1983: *Azala.* LP-K, IZ Disketxea. Ref. IZ-184.
- 1984: *Txanbela.* LP-K, IZ Disketxea. Ref. IZ-206.
- 1985: *Euskal Herriko Soinu Tresnak.* LP-K-C- informazio zabala duen liburuskarekin. IZ Disketxea. Ref. IZ-217.

- 1987: *Doinurik doinu*. (Txanbela). LP-K, IZ Disketxea. Ref IZ-265.
- 1989: *Hirugarren koxkan*. (Txanbela). LP-K-CD, IZ Disketxea. Ref. IZ-318.
- 1991: *Euskaraz bizi*. Nafarroa oinez 1991, kaseta grabaketaren ardura-duna eta jolea.
- 1993: *Eguraren orpotik dator...* (Joxan Goikoetxea-Juan Mari Beltran) CD. NO-CD 04.
- 1997: *Arin-arinketan*. (Txanbela). KD-K, IZ Disketxea. IZ-488.
- 1998: *Beti ttun-ttun*. (Joxan Goikoetxea-Juan Mari Beltran) NO-CD. CDNO21.
- 2002: *Arditurri* (Juan Mari Beltran) KD-K. Elkar. ELK 614.
- 2006: *Orhiko xoria* (Juan Mari Beltran) KD-K. Elkar. ELK 729.
- 2007: *Amasatik Arratera*. Juan Mari Beltran, Luis eta Jose Mari Astiasaran. HMZ-SS-430-2007.
- 2008: *Mendukiloko hotsak*. (Juan Mari Beltran txalaparta laukotea) Mendukiloko leizea.
- 2009: *Txalaparta*. (Juan Mari Beltran txalaparta laukotea) (liburua+CD+DVD). Editorial Nerea – NO-CD Rekords. Donostia-San Sebastián. NOCD Records. CDNO 30.
- 2012: *Xírolarrua*. CD-liburua. Juan Mari Beltran-Fernando Jalon. HMB-2012-534.
- 2014: *Hots-larretan*. (Juan Mari Beltran). NO-CD. CDNO37.
- 2014: *Enioko Magalean*. HMB-2014-1556-CD.
- 2015: *Dultzaina Gipuzkoan*. HMB-2015-1351-CD.
- 2016: *Larraungo Herri-dantzak. Larraungo herrietan XX. mende hasieratik erdiladera arte egín ziren dantzak*. HMB-2016-1154-CD.
- 2017: *Agirretxetarrak. Gipuzkoako dultzainaren testigantza*. HMB-2017-1172-CD.
- 2018: *Pierre Caubet: "Pethi Xübüko Arhane"*. Liburu+CD+DVD. Oiartzun. HMB-2018-1329.
- 2019: *Kostaldeko soinuak*. (Juan Mari Beltran). NO-CD. CDNO42.
- 2020: *Caubet gogoan*. (Jean Mixel Bedaxagar, Titika Rekalt, Juan Mari Beltran). HMB-2020-00986.

Parte-hartzea beste diskoetan

- 1977: *Mosen Bernart Etxepare-1545*. Oskorri taldea. LP-K. Ref. CBS 582479. (Dultzaina).
- 1983: *Herriko plazan*. X. Amuriza. LP-K. Ref. IZ-190. (Dultzaina).
- 1984: *Ebihotz*. Eltzegor taldea. LP-K. Ref. IZ 208. (Dultzaina, Txistu, Klarinete, Flauta).
- 1987: *Jo eta hautsi*. Tapia eta Leturia. LP-K. Ref. ELK-147. (Dultzaina).
- 1988: *Sasitik sasira*. Eltzegor taldea. LP-K. Ref. IZ 281. (Dultzaina).
- 1992: *Araba Euskaraz 1992*. K. (Txalaparta).
- 1995: *Amonaren mengantza*. Amaia Zubiria. IZ; IZ 445 KD. (Dultzaina).
- 1996: *Eskua sartzen*. Furunda. HF-002 KD-K (alboka).
- 1996: *Amonaren mengantza*. Amaia Zubiria. IZ-445 (dultzaina).
- 1998: *Etzakit*. Etzakit taldea. Triki Elkarlanean KD-485. (Alboka, xiolarrua).
- 1998: *Bi beso lur*. Alboka taldea. Azarna. AZ 004 (tronpa-mosukitarra).
- 1998: *Oiartzungo kantu zaharrak*. Elkarlanean. KD-505 (toberak).
- 1999: *Babarrunaren dantza*. J. Gorriti; J. M. Beltran; J. Goikoetxea; S. Saiz. NO-CD Rekords; CDX NO 01.
- 2001: *Grandes éxitos*. Javier Álvarez. GASA. PRO2387. Alboka, txalaparta.
- 2001: *Lorius*. Alboka Taldea. Resistencia. RESC 126. txalaparta
- 2003-05-12: *Euskal praise*. Arion. NA-2502/03. Biltokia Cristiana (Txalaparta).
- 2003-05-28: *Ticzag*. Juan Azpitartek eginiko filman musika jarri. Txalaparta, zarrabetea, burrunak, adarrak.
- 2003-11-24: *Orai*. Xabi SanSebastianen diskoan. Txalaparta. NOCD Records. CDNO 26.
- 2004: *Ayres*. Mariví Cabo. Risko Records para Producciones del Mar. RRPDM 002. pdm. Txalaparta: Juan Mari Beltran-Iñigo Monreal.
- 2005: *Pamplona: Ciudad de Todos / Iruñea: Guztion Hiria*. Fran Idareta. Alboka. Etxe-ondo.

- 2007: *Danzas del Cameros Viejo*. Fernando Jalón y Javier Soldevilla. Música tradicional y cultura oral de La Rioja. Voñumen 3. Piedra de Rayo.
- 2007: *Gloria – Assim – Vlernika*. Dick Van der Harst stadscomponist Gent 2007-2008. KD bikoitza; DVD. Stad Gent; Departement Cultuur. HML 9209; Gent; 2007. Assim. Modern folk hemerecords; 4446054. Txalaparta, alboka, txistu-ttunttuna.
- 2012: *Herrira goaz*. Josu Zabala eta Joseba Sarrionaindiaren abestian. Txalaparta, txistu, xirula, alboka, dultzaina, tronpa, ttun-ttun.
- 2014: *LO HADI; Comptines et berceuses basques; Josteta eta sehaska kantuak*. Alboka, txalaparta, txistua... Elkar; Didier; 2014; ISBN: 978-2-278-06534-9.

3. IKUS ENTZUTEKOAK ETA BESTEAK

- 1973: Azal Doinuak. Sunpriñu eta txulubite. 17 minutuko iraupena duen 16 mm. egindako pelikula.
- 1985: “Euskal Herriko Soinu-Tresnak”. 60 minuto. Bideo-filma. Ikastetxeetako material didaktikoa (1996 berrargitaratua). E.T.B. zatika emititua.
- 1999: “Oiertzungo hotsak”. Bideo ekoizpena. Gidoia eta zuzendaritza. Oiertzungo Udala.
- 2009: Txalaparta. DVD. Errealizazioa: Kepa Ugarte. NOCD Records. D.L. SS-1380-2009. (liburua+CD+DVD). Editorial Nerea – NO-CD Rekords. Donostia-San Sebastián.


Bestelako filmetako partehartzailea

- 1968: AMA LUR. F. Larrukert eta N. Basterretxearen filmea. (Txistua).
- 1978: HERRIKOI MUSIKA. F. Larrukerten filmean. (Sunpriñua).
- 1991: “Euskaraz bizi”. Nafarroa oinez 1991, bideoa. (Alboka).




Bestelako lanak


- 1999: *Euskal Herriko Soinu-tresnak*. CD-ROM. Elhuyar Kultur Elkartea-Herri Musikaren Txokoa.
- 2007: *TTAKUN 2.1 Txalaparta musika idazteko programa informatikoa*, Andres Doñate informatikoaren laguntzarekin, txalaparta eskoletan erabiltzeko CDROMa. HMZ-CDR-SS-689-2007.
- 2007: *20 años Txalaparta Festa 20 urtetan. CDROM*. Kepa Ugarte informatikoaren laguntzarekin. HMZ-CDR-SS-690-2007.
- 2015: *TTAKUN 3.0*, Gorka Montero informatikoaren laguntzarekin, txalaparta eskoletan erabiltzeko programa informatikoa.



Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria
jaso duten pertsonalitateak:

- 1983. Manuel de Lekuona
- 1984. Odón Apraiz
- 1985. P. Jorge de Riezu
- 1986. Andrés de Mañaricua y Nuere
- 1987. Justo Gárate
- 1988. Manuel Laborde
- 1989. Eugène Goyheneche
- 1990. Gerardo López de Guereñu Galarraga
- 1991. Carlos Santamaría Ansa
- 1992. Bernardo Estornés Lasa
- 1993. Francisco Salinas Quijada
- 1994. Xabier Diharce “Iratzeder”
- 1995. Adrián Celaya Ibarra
- 1996. Jorge Oteiza Embil
- 1997. Micaela Portilla Vitoria
- 1998. José María Jimeno Jurío
- 1999. Piarres Charriton
- 2000. José Miguel de Azaola Urigüen
- 2001. José Ignacio Tellechea Idígoras
- 2002. Armando Llanos Ortiz de Landaluze
- 2003. Jesus Atxa Agirre
- 2004. Jean Haritschelhar
- 2005. Elías Amézaga Urzélaga
- 2006. Menchu Gal
- 2007. Sabin Salaberri Urzelai
- 2008. Montxo Armendáriz
- 2009. Txomin Peillen Karrikaburu
- 2010. Jose Antonio Arana Martixa


- 
2011. Jose Luis Ansorena Miranda
 2012. Soledad Silva y Verástegui
 2014. Antxon Aguirre Sorondo
 2015. Joan Mari Torrealdai
 2016. Jean Louis Davant Irtzabal
 2017. Fermín Leizaola Calvo
 2018. Mari-Jose Azurmendi Ayerbe
 2019. Xabier Amuriza
 2020. Jose Ramon Etxebarria
 2021. Jon Bagüés Erriondo
 2022. Enkarni Genua Espinosa
 2023. Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba
 2024. Juan Mari Beltran Argiñena



Remigio Mendiburu artistak eginiko brontzezko eskultura

2024

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

